

# Goizeko bederatziak eta hamabi



**PAULINE GUELLE**  
ZUZENBIDE PUBLIKOAN  
DOKTOREGAI ETA IRAKASLEA

**G**oizeko 09:12 Arrosako geltokian. Agorrilean gara, autoa panan eta euria ari du. Han eta hemen kuskuakin zebiltzan hiru beilari. Ikasle bat amatxiren etxera abiatzen zena. Bi bizikletadun.

Lantokira zoanak deserosotasun samarra sentitu zuen Arrosan trenea harrapatzean. Jendez emokatua zen bagoia bere muturraren aitzinean gelditzean ezinezona baieztatu zion. Leku bat xekatuko zuen azkarki. Gainera, koronabirusaren aurkako babes neurriak segitzekotan, toki bat biren gain baizik ez ziren baliatzen ahal. Ezinezkoa iruditu zitzaion langileari. 45 minutuko bidea bazuen Baionako lantokira, zutik egon behar ote zen? Zulo ttipi batean kokatuko zen, sagua bezala. Inguruan, Quechuaz jantzitako behin-behineko edo ohiturazko bide eta mendizaleak hamarnaka. Batez ere, Donibane-Garazitik Kanboko ur onetara zihoazen burges taldetxoak –berberak atzemanen zituen kontrako bidea eginen zuelarik; ur onetan zitezkeen aste baterako eta “itzuliño bat Donibane-Garazin” egiteko aukera ukanik, arratsalde batez hartu zuten trenea-.

Sos egiteko sugeak Baionatik Donibane-Garazira garamatza. Hemengo langile eta ikasleei tenore eta prezio desegokiak proposatuz, betetzen ote du bere funtzioa? Turista masa eramateko tresna bilakatu da tren ttipia

Langileari, aste honetan baizik ez zaio tokatu lantegira trenez joatea. Nahiz eta Ortzaizen bizi den, autoa du ohizko ibilgailu. Treneko ordutegia desegokia iruditzen zaio: goizeko 06:40etan hartzea ez zaio komeni, lanean ez du goizegi iritsi nahi atea hetsirik atzemateko; aldiz, 09:12etan Arrosatik abiatuz Baionan berantegi erakutsiko zion nagusiari bere aurpegia.

Garraio publikoa izan ezik, turistak baizik ez ditu karreetzen ‘Limousin’ eskualdetik etortzen zaigun kar-

kasak. Baionatik Donibane-Garazira edota Donibanetik Kanbora. Hau dena beilariendako da aproposa. Baionara iristen diren erromesek, zuzenki Donibane-Garazira jotzen dute beren zaku maskordun alimalekoekin. Egiatzko bidaia. Beldar elektriko hura hartuko dutenek “bista xoragarria” gozatuko dute trenetik. “Domaia da oraiko pintadek bista kukutzen baitute!”, “Pintadak espres eginak dira?”, galdegingo zioten ondoko autoktonoari lekuz alda zedin eskatuz –“ur xirripa hobeki ikusteko zeren gure aldean arroka baizik ez da”– argudiatuz.

Sos egiteko sugeak Baionatik Donibane-Garazira garamatza. Hemengo langile eta ikasleei tenore eta prezio desegokiak proposatuz, betetzen ote du bere funtzioa? Turista masa eramateko tresna bilakatu da tren ttipia, eta hau da Frantziar estatuak barnetik erailtzen duen sektore publikoa. Euskal Herria enkantean salduz eta garraio publikoa desbideratuz. Herritarrentzat behar gabeko bilakatuz, pribatizatzeo parada errazagoa emanen dio tren konpainiari, hain segur; non ez den mendi eta folklokeria saltzeko tresna bihurtu. ●

